- Zailagoa egiten zaizu autismoa duten umeekin lan egitea beste nahaste batzuk dituzten umeekin lan egitea baino? Zergatik?

“Kasu batzuetan bai. Adibidez, komunikazio arazoak dituzten umeekin lan egitea zailagoa izan ohi da.”

- Uste duzu zailagoa dela autismoa duten umeetan hobekuntzak lortzea beste nahaste batzuk dituzten umeekin alderatuz? Arrazoitu erantzuna.

“Ez, hau kasuaren arabera dela esango nuke.”

- Uste duzu formakuntza berezi bat izatea beharrezkoa dela ume hauekin lan egiteko? Zergatik?

“Uste dut beharrezkoa dela autismoaren arloan jakintza batzuk izatea, batez ere ume hauekin zure lana nondik hasi jakin ahal izateko eta hain galduta ez sentitzeko.”

4. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN IZANDAKO ESPERIENTZIA:

- Orokorrean, nolakoa izan da ikasle hauekin izandako esperientzia eta harremana?

“Esperientzia polita eta zaila izan da, eta haiekiko harremana orokorrean ona.”

- Zeintzuk esango zenute direla autismoa duten ikasleen indarguneak? Eta zeintzuk uste duzu direla ikasle hauen puntu ahulenak edo zailtasunik handienak?

“Indarguneak, ume batzuk gai batzuetan adituak direla eta oso onak direla, eta baita ere errutinak jarraitzen oso onak direla askotan. Bestalde, ume hauen zailtasun nagusiak harreman sozialak eta komunikazioa direla esango nuke. Batzuetan ikusten duzu haiek harreman nahi direla baina ezin dutela, ez dira gai.”

- Zer nolako sentimenduak izan dituzu ume hauekin lan egin duzunean? Zergatik?
“Haiekin harreman bat garatzea lortu dudanean edo hobetzen ari direla ikusten dudanean poza. Batzuetan ere ume hauekin galduta sentitu naiz, ez nuelako aurkitzen haiekin lan egiteko bide egokia.”
- Zure esperientzian oinarrituz, zein/zeintzuk izan daitezke irakasle batentzat aspektu klabeak ume autista batekin modu egokian harremantzeko orduan?
“Irakasle batek lehenik eta behin jakin behar du ume hori nola funtzionatzen duen, bere mundua ikusteko modua ulertzen saiatu behar da, bere komunikatzeko modua, harremantzeko modua... Gainera, irakasleak haien beharretara moldatzeko gai izan behar gara, malguak izan behar gara. Bestalde, garrantzitsua da ere ikasle hauek gelan integratzea eta taldeko gainontzeko ikasleei ume horren funtzionatzeko era ezagutaraztea modu natural eta normal batean.”

5. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN ERABILITAKO ESKU-HARTZEAK ETA PRAKTIKAK:

- Autismoaren esku-hartzeari dagokionez, esku-hartze eredu desberdinak existitzen direla esan daiteke. Zer teknika edo baliabide erabiltzen dituzu ikasle hauen hezkuntza aurrera eramateko?
“Normalean material manipulatioak erabiltzen ditugu, hala nola, piktogramak, kanpo semantikoak, esaldiak, irudiak, argazkiak. Gainera ume hauek logopedarekin egon ohi dira astero ordu batzuk, komunikazioa hobetzeko. Bestalde, ARASAAC eta “Soy visual” tresna elektronikoak erabiltzen hasi naiz duela gutxi, komunikazioa hobetzeko nahiko lagungarriak direnak.”
- Ordenatu garrantzirik handienetik gutxienera zure ustetan autistekin irakaskuntza-ikaskuntza egoerak aurrera eramateko aipatzen diren honako hauek:

- Umearekiko distantzia errespetatu jazarpen eta mehatxu sententzioak ekiditeko.
- Aspektu motore eta posturalak lantzea fenomeno emozionalak eta ingurunea ulertzeko helburuarekin.
- Aspektu logopedikoak lantzea.
- Musikaren elementuak erabiltzea efektu lasaigarriak lortzeko eta portaera sozio-emozionala hobetzeko.
- Antolakuntza materialak erabiltzea ordena eta antolamendua mantentzeko: piktogramak, taulak, ordutegiak....
- Haien interes estereotipatuak eta obsesioak oinarritzat hartzea eta horietatik abiatzea beste gaien inguruko ikasketa sustatzeko.
- Teknologia berriak erabiltzea (ZAC Browser nabigatzailea, Pecs sistema interaktiboa...).
- Errefortzuak erabiltzea portaeran eragiteko: sariak eta zigorrak.
- Azken hamarkadetan, autismoa duten umeekin lantzeko beste esku-hartze, aukera eta baliabide batzuk sortu dira, ezagutzen duzu baten bat? Noizbait erabili dituzu?

“Egia esanda ez, talde terapiak esango nuke baina ez dut uste oso berritzailea denik.”

- Teknologia berriak autismoa duten umeen hezkuntza aurrera eramateko baliagarriak direla uste duzu? Erabili ohi dituzu?

“Bai, zalantzarik gabe, batez ere komunikazioa hobetzen dutelako eta umeen inguruko informazioa lortzeko baliagarriak direlako askotan. Saiatzen naiz teknologia berriak erabiltzen, hala ere arlo honetan eguneratuta egotea beharrezkoa da, etengabeko formakuntza izatea azken finean, beti baitaude garapenean.”

- Zein esango zenuke dela irakasleek duten oztopo edo traba nagusia metodologia edo esku-hartze eredu berritzaileak erabiltzeko?

“Batuetan zaila da, azken finean ikasle asko dituzulako, eta ezin diozu zure arreta guztia ume bakarrari eskaini, beraz zentzu horretan denbora falta nabaria da.”

Laugarren elkarrizketa:

1. DATU OROKORRAK:

- Eskola mota: Publikoa Itunpekoa
- Irakaslearen adina: 37
- Generoa: Emakumezkoa Gizonezkoa
- Egindako ikasketak: Lehen Hezkuntza eta goi mailako Heziketa Fisikoko modulua.
- Eskola honetan zein beste eskola batzuetan Lehen Hezkuntzako irakasle bezala izandako esperientzia/ urte kopurua: 11
- Autismoa duten ikasleekin izandako esperientzia/ urte kopurua: 2

2. IRAKASLEEN FORMAKUNTZA ETA AUTISMOAREN INGURUKO EZAGUTZAK:

- Autismoaren inguruko formakuntzarik jaso duzu? Non edo noren partez jaso zenuen formakuntza hori? Nolakoa izan zen? Baliogarria izan zen?
“Ez, ez dut gogoratzen halako formakuntzarik jaso izana.”
- Autismoa duten ikasleekin lan egiteko prestakuntza edo formakuntza nahikoa duzula uste duzu? Zergatik?
“Uste dut izandako esperientziek ume hauekin lan egiteko prestatu nautela, asko ikasi dut haiekin egon naizenean. Hala ere, formakuntza gehiago behar dudala esango nuke bai.”
- Zure kabuz autismoaren inguruko informazioa bilatu duzu noizbait? Non?
“Ez.”
- Orokorrean, uste duzu zentro honetako irakasleen formakuntza maila egokia dela autismoa duten umeen beharrei erantzuteko?
“Bai, orokorrean bai noski.”

- Zer nolako informazio gehigarria jasotzea gustatuko litzaizuke?
“Batez ere autismoaren nahastearen barruan dauden motak ezagutzea gustatuko litzaidake, eta nahaste mota bakoitza duten umeen zailtasun edo ezaugarri orokorrak zeintzuk diren ere. Hala ere, egia da formakuntza eta teoria beharrezkoa dela, baina esperientzia eta praktika premiazkoa da.”

3. IRAKASLEEN PERTZEPZIOA AUTISMOAREN AURREAN

- Uste duzu hezkuntzaren bitartez autismoa duten ikasleen gaitasunak (akademikoak, sozialak, komunikazio gaitasunak) hobetu daitezkeela?
“Bai hobetu dezakete noski.”
- Uste duzu hezkuntzaren bidez autismoa duten ikasleen portaera hobetu daitezkeela? Erantzuna baiezkoa bada, nola?
“Bai. Ez nuke jakingo esaten nola, baina bai uste dut hobetu daitezkeela, beti ere eskolako lana etxekoarekin batera doanean.”
- Zailagoa egiten zaizu autismoa duten umeekin lan egitea beste nahaste batzuk dituzten umeekin lan egitea baino? Zergatik?
“Ez, ez du zertan, ume bakoitza desberdina da azken finean.”
- Uste duzu zailagoa dela autismoa duten umeetan hobekuntzak lortzea beste nahaste batzuk dituzten umeekin alderatuz? Arrazoitu erantzuna.
“Bai, ume hauek zailtasun nabari batzuk dituztelako eta zailtasun horiek haien prozesua asko zailtzen dutelako askotan.”
- Uste duzu formakuntza berezi bat izatea beharrezkoa dela ume hauekin lan egiteko? Zergatik?
“Beharrezkoa... agian bai, osagarria da beti, baina lagungarriena esperientziak eta bizipenak dira.”

4. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN IZANDAKO ESPERIENTZIA:

- Orokorrean, nolakoa izan da ikasle hauekin izandako esperientzia eta harremana?
“Aberasgarria eta batzuetan tentsiozkoa, izan ere kasu batzuetan ez dakizu zer nolako erantzunak edo erreakzioak izango dituzten eta horrek tentsioa eragiten du.”

- Zeintzuk esango zenuke direla autismoa duten ikasleen indarguneak? Eta zeintzuk uste duzu direla ikasle hauen puntu ahulenak edo zailtasunik handienak?
“Indarguneak kasuaren eta graduaren arabera. Asperger duten umeak adibidez oso onak dira informazioa buruz ikasten, memoria oso ona dute. Ahulguneak, berriz, haien konfort gunetik edo ordenatik ateratzeko zailtasuna, eta harreman sozialak garatzeko zailtasuna noski.”
- Zer nolako sentimenduak izan dituzu ume hauekin lan egin duzunean? Zergatik?
“Batzuetan tristura eta frustrazioa sentitu dut, zuk badakizulako haiek txarto pasatzen dutela, eta askotan ez dakizu nola lagundu ahal diezun. Beste batzuetan ere poztasuna sentitu dut, haiekin konektatzea lortu dudanean batez ere.”
- Zure esperientzian oinarrituz, zein/zeintzuk izan daitezke irakasle batentzat aspektu klabeak ume autista batekin modu egokian harremantzeko orduan?
“Haiek ulertzen saiatzea, eta ikasle hauen zailtasunak eta abileziak ezagutzeko ahalegina egitea.”

5. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN ERABILITAKO ESKU-HARTZEAK ETA PRAKTIKAK:

- Autismoaren esku-hartzeari dagokionez, esku-hartze eredu desberdinak existitzen direla esan daiteke. Zer teknika edo baliabide erabiltzen dituzu ikasle hauen hezkuntza aurrera eramateko?
“Logopedia, ume batzuk ere farmakoak hartzen dituzte, material manipulatioak eta jolasak. Hala ere aipatutako baliabideak gehienetan Pedagogia Terapeutikoko irakaslearekin erabiltzen dituzte.”
- Ordenatu garrantzirik handienetik gutxienera zure ustetan autistekin irakaskuntza-ikaskuntza egoerak aurrera eramateko aipatzen diren honako hauek:
 - Umearekiko distantzia errespetatu jazarpen eta mehatxu sentsazioak ekiditeko.
 - Antolakuntza materialak erabiltzea ordena eta antolamendua mantentzeko: piktogramak, taulak, ordutegiak...
 - Haien interes estereotipatuak eta obsesioak oinarritzat hartzea eta horietatik abiatzea beste gaien inguruko ikasketa sustatzeko.

- Teknologia berriak erabiltzea (ZAC Browser nabigatzailea, Pecs sistema interaktiboa...).
 - Aspektu logopedikoak lantzea.
 - Aspektu motore eta posturalak lantzea fenomeno emozionalak eta ingurunea ulertzeko helburuarekin.
 - Errefortzuak erabiltzea portaeran eragiteko: sariak eta zigorrak.
 - Musikaren elementuak erabiltzea efektu lasaigarriak lortzeko eta portaera sozio-emozionala hobetzeko.
- Azken hamarkadetan, autismoa duten umeekin lantzeko beste esku-hartze, aukera eta baliabide batzuk sortu dira, ezagutzen duzu baten bat? Noizbait erabili dituzu?

“Entzun dut animaliekin terapiak egiten direla eta baita ere musikarekin, baina ez dakit asko hauen inguruan.”
 - Teknologia berriak autismoa duten umeen hezkuntza aurrera eramateko baliagarriak direla uste duzu? Erabili ohi dituzu?

“Bai. Momentu honetan ez.”
 - Zein esango zenuke dela irakasleek duten oztopo edo traba nagusia metodologia edo esku-hartze eredu berritzaileak erabiltzeko?

“Denbora eta baliabideak, baina batez ere denbora. Kontuan izan behar duzu gelan 27 ume dituzula, bera ez dela bakarra, eta guztiek dituztela behar batzuk edo beste.”

Bosgarren elkarrizketa

1. DATU OROKORRAK:

- Eskola mota: Publikoa Itunpekoa
- Irakaslearen adina: 38
- Generoa: Emakumezkoa Gizonezkoa
- Egindako ikasketak: Lehen Hezkuntza Musikako aipamenarekin.

- Eskola honetan zein beste eskola batzuetan Lehen Hezkuntzako irakasle bezala izandako esperientzia/ urte kopurua: 14
- Autismoa duten ikasleekin izandako esperientzia/ urte kopurua: 10

2. IRAKASLEEN FORMAKUNTZA ETA AUTISMOAREN INGURUKO EZAGUTZAK:

- Autismoaren inguruko formakuntzarik jaso duzu? Non edo noren partez jaso zenuen formakuntza hori? Nolakoa izan zen? Baliogarria izan zen?
“Ez, bakarrik unibertsitatean jaso nuena, eta gehien bat teoria izan zen, batik bat, ume hauen ezaugarrien inguruko informazioa eta haiekin lan egiteko aholkuak edo jarraibideak. Momentuan bai baliagarria izan zen, baina gero haiekin lanean hasten zarenean guztiz desberdina da eta momentu horretan konturatzen zara ez dela nahikoa jaso duzun formakuntza.”
- Autismoa duten ikasleekin lan egiteko prestakuntza edo formakuntza nahikoa duzula uste duzu? Zergatik?
“Ez, uste dut formakuntza gehiago behar dudala, batez ere praktika aldetik, ez hainbeste teoria.”
- Zure kabuz autismoaren inguruko informazioa bilatu duzu noizbait? Non?
“Informazioa bilatu ez hainbeste, baina ume hauekin lan egiten hasi nintzenean pedagogia terapeutikoko irakasleengana eta espezialistengana jotzen nuen laguntza eskatzeko edo sortzen zitzaizkidan zalantzak argitzeko.”
- Orokorrean, uste duzu zentro honetako irakasleen formakuntza maila egokia dela autismoa duten umeen beharrei erantzuteko?
“Bai, orokorrean bai, batez ere pedagogia terapeutikoaren inguruko ikasketak dituztenak. Hala ere irakasle askok ume hauekin esperientzia anitzak izan dituzte, beraz, bai, gehienak prest daude haiekin lan egiteko eta moldatzen dira.”
- Zer nolako informazio gehigarria jasotzea gustatuko litzaizuke?
“Haiekin nola harremantzeko eta komunikatzeko informazioa, izan ere, hori askotan ume hauekin zaila da.”

3. IRAKASLEEN PERTZEPZIOA AUTISMOAREN AURREAN

- Uste duzu hezkuntzaren bitartez autismoa duten ikasleen gaitasunak (akademikoak, sozialak, komunikazio gaitasunak) hobetu daitezkeela?
“Bai, gainera uste dut komenigarria dela ume hauek eskolan egotea eta taldean barneratzea, hori oso onuragarria da haien garapenerako eta laguntzen du.”
- Uste duzu hezkuntzaren bidez autismoa duten ikasleen portaera hobetu daitezkeela? Erantzuna baiezkoa bada, nola?
“Hori zaila da, haiek askotan dakite gauza bat ezin dela egin baina ezin dute kontrolatu, beraz zaila da.”
- Zailagoa egiten zaizu autismoa duten umeekin lan egitea beste nahaste batzuk dituzten umeekin lan egitea baino? Zergatik?
“Kasuaren arabera esango nuke eta umearen arabera batez ere.”
- Uste duzu zailagoa dela autismoa duten umeetan hobekuntzak lortzea beste nahaste batzuk dituzten umeekin alderatuz? Arrazoitu erantzuna.
“Ez zailagoa ez. Gauza bera esango dizut, umearen arabera.”
- Uste duzu formakuntza berezi bat izatea beharrezkoa dela ume hauekin lan egiteko? Zergatik?
“Bai, guztiz. Azkenean ume hauek laguntzea lortzeko haiekin nola lan egin behar den ezagutzea beharrezkoa da, bestela oso zaila da.”

4. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN IZANDAKO ESPERIENTZIA:

- Orokorrean, nolakoa izan da ikasle hauekin izandako esperientzia eta harremana?
“Ona. Batzuk oso zurrinak dira eta oso harroak, baina haiekin harreman bat sortzea lortzen duzunean oso ona, positiboa.”
- Zeintzuk esango zenuke direla autismoa duten ikasleen indarguneak? Eta zeintzuk uste duzu direla ikasle hauen puntu ahulenak edo zailtasunik handienak?
“Oso memoria ona dutela, adibidez, izan nuen ume batek, asperger zena, zerrendak ikasten zituen eta pasada bat zen. Beste batzuk material manipulatioekin oso onak dira, abilezia handia dute. Zailtasunak... gehien bat arlo sozialean. Gehienak ere oso burugorrorak dira aldaketekin. Zaratekin ere oso urduri jartzen dira, eta batzuetan musikako irakasgaian txarto pasatzen dute musika edo instrumentuekin.”

- Zer nolako sentimenduak izan dituzu ume hauekin lan egin duzunean? Zergatik?
“Poztasuna, batez ere haiekin harreman bat sortzen duzunean eta haiekin hobekuntzak lortzerakoan, hori oso indargarria da, pertsona giza errealizatua sentitzen zara.”
- Zure esperientzian oinarrituz, zein/zeintzuk izan daitezke irakasle batentzat aspektu klabeak ume autista batekin modu egokian harremantzeko orduan?
“Pazientzia, haiekin goxoak izatea, umea ulertzen saiatzea eta batez ere haien espazioa ematea eta errespetatzea, hau da, hurbilak izatea baina haien lekua utziz beti.”

5. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN ERABILITAKO ESKU-HARTZEAK ETA PRAKTIKAK:

- Autismoaren esku-hartzeari dagokionez, esku-hartze eredu desberdinak existitzen direla esan daiteke. Zer teknika edo baliabide erabiltzen dituzu ikasle hauen hezkuntza aurrera eramateko?
“Gehienetan hasieran haien espazioa eskaintzen saiatzen naiz eta haiengana pixkanaka hurbiltzen noa. Hau da, haien espazioa eskaintzea batez ere. Bestalde jolasak, instrumentuak eta objektuak ere erabiltzen nituen haiekin. Horrez gain ume hauek logopedarekin eta petadogia terapeutikoko irakasleekin ordu batzuk igarotzen zituzten gelatik kanpo.”
- Ordenatu garrantzirik handienetik gutxienera zure ustetan autistekin irakaskuntza-ikaskuntza egoerak aurrera eramateko aipatzen diren honako hauek:
 - Umearekiko distantzia errespetatu jazarpen eta mehatxu sentsazioak ekiditeko.
 - Aspektu motore eta posturalak lantzea fenomeno emozionalak eta ingurunea ulertzeko helburuarekin.
 - Antolakuntza materialak erabiltzea ordena eta antolamendua mantentzeko: piktogramak, taulak, ordutegiak....
 - Haien interes estereotipatuak eta obsesioak oinarritzat hartzea eta horietatik abiatzea beste gaien inguruko ikasketa sustatzeko .
 - Errefortzuak erabiltzea portaeran eragiteko: sariak eta zigorrak.
 - Musikaren elementuak erabiltzea efektu lasaigarriak lortzeko eta portaera sozio-emozionala hobetzeko.

- Teknologia berriak erabiltzea (ZAC Browser nabigatzailea, Pecs sistema interaktiboa...).
- Aspektu logopedikoak lantzea.
- Azken hamarkadetan, autismoa duten umeekin lantzeko beste esku-hartze, aukera eta baliabide batzuk sortu dira, ezagutzen duzu baten bat? Noizbait erabili dituzu?

“Ez, ez dut horren inguruko formakuntzarik jaso eta ez ditut ezagutzen.”

- Teknologia berriak autismoa duten umeen hezkuntza aurrera eramateko baliagarriak direla uste duzu? Erabili ohi dituzu?

“Bai entzun dut erabilgarriak direla eta badakit pedagogia terapeutikoko irakasleekin erabili ohi dituztela, baina ni tutore moduan ez ditut inoiz erabili horrelako euskarriak.”

- Zein esango zenuke dela irakasleek duten oztopo edo traba nagusia metodologia edo esku-hartze eredu berritzaileak erabiltzeko?

“Askotan irakasleak oso eroso sentitzen dira haiek egiten duten lanarekin, eta haien lanean aldaketak egitea zaila egiten zaie, hau da, ez badituzu noizbehinka formakuntzak jasotzen edo ez baduzu zure gustuko gauzen inguruak ikasten, azkenean erosotasunean jauzi zaitezke, beraz, bai, erosotasun horretan jauzteko traba handi bat izan daiteke. Gainera nik uste dut irakasle batzuk beldurra sentitzen dutela gauza berriak ikasteko gai ez direla pentsatzen dutelako edo, baina beti saiatu behar gara. Denbora falta baita ere traba handia da.”

Seigarren elkarrizketa:

1. DATU OROKORRAK:

- Eskola mota: Publikoa Itunpekoa
- Irakaslearen adina: 48
- Generoa: Emakumezkoa Gizonezkoa
- Egindako ikasketak: Lehen Hezkuntza eta Euskal Filologia.

- Eskola honetan zein beste eskola batzuetan Lehen Hezkuntzako irakasle bezala izandako esperientzia/ urte kopurua: 27
- Autismoa duten ikasleekin izandako esperientzia/ urte kopurua: 5

2. IRAKASLEEN FORMAKUNTZA ETA AUTISMOAREN INGURUKO EZAGUTZAK:

- Autismoaren inguruko formakuntzarik jaso duzu? Non edo noren partez jaso zenuen formakuntza hori? Nolakoa izan zen? Baliogarria izan zen?
“Ez, jasotako informazioa nire kabuz izan da.”
- Autismoa duten ikasleekin lan egiteko prestakuntza edo formakuntza nahikoa duzula uste duzu? Zergatik?
“Bai, orain bai, izandako esperientziei esker batik batik bat. Azkenean esperientzien bidez ume hauekin nola lan egin daitekeen ikasten duzu, eta haien ezaugarriak ere ezagutzen dituzu.”
- Zure kabuz autismoaren inguruko informazioa bilatu duzu noizbait? Non?
“Bai, liburuetan, interneten eta Pedagogia Terapeutikoko espezialisteei galdetuz.”
- Orokorrean, uste duzu zentro honetako irakasleen formakuntza maila egokia dela autismoa duten umeen beharrei erantzuteko?
“Bai, eskola honetan kasu asko egon direlako, eta askotan lan egin dugulako autismoa duten ikasleekin.”
- Zer nolako informazio gehigarria jasotzea gustatuko litzaizuke?
“Haiekin lan egiteko metodologia eta teknika berriak ezagutzea.”

3. IRAKASLEEN PERTZEPZIOA AUTISMOAREN AURREAN

- Uste duzu hezkuntzaren bitartez autismoa duten ikasleen gaitasunak (akademikoak, sozialak, komunikazio gaitasunak) hobetu daitezkeela?
“Bai, gehiago edo gutxiago baldin bada ere, denak doaz aurrera.”
- Uste duzu hezkuntzaren bidez autismoa duten ikasleen portaera hobetu daitezkeela? Erantzuna baiezkoa bada, nola?

“Ere bai, azkenean ikasten dute. Hala ere zaila da, oso konstantea izan behar zara, egunero gauza berdinak egin behar dituzu eta helburuak gutxi eta oso zehatzak izan behar dira.”

- Zailagoa egiten zaizu autismoa duten umekin lan egitea beste nahaste batzuk dituzten umekin lan egitea baino? Zergatik?

“Zailagoa ez, ez bereziki. Kasu bakoitza desberdina da, ume bakoitza mundu bat da.”

- Uste duzu zailagoa dela autismoa duten umetan hobekuntzak lortzea beste nahaste batzuk dituzten umekin alderatuz? Arrazoitu erantzuna.

“Ez, aurrekoan esan dudan berdina, kasuaren eta adinaren arabera. Ume bakoitzak tope bat du, eta horretara heltzen zarenean gure lana maila hori mantentzea da. Gainera, kasuaren arabera helburuak desberdinak dira.”

- Uste duzu formakuntza berezi bat izatea beharrezkoa dela ume hauekin lan egiteko? Zergatik?

“Bai, baina ez soilik autismoaren kasuan. Gaur eguneko geletan denetarik dago, eta irakasleok errealitate horretara moldatu behar gara. Irakasleak ikasteko prest egon behar gara beti.”

4. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN IZANDAKO ESPERIENTZIA:

- Orokorrean, nolakoa izan da ikasle hauekin izandako esperientzia eta harremana?

“Kasu batzuetan oso ona, baina ume batzuekin ez dut lortu harreman on bat izatea. Hau da, ume batzuekin oso konexio handia garatu dut, baina beste batzuekin ez dut konektatzea lortu. Gainera autismo kasuetan harremanak oso muturrekoak izan ohi dira; edo asko konektatzen duzu edo harremana oso txikia da.”

- Zeintzuk esango zenuke direla autismoa duten ikasleen indarguneak? Eta zeintzuk uste duzu direla ikasle hauen puntu ahulenak edo zailtasunik handienak?

“Indarguneak agian kasu batzuetan memoria ona dutela edo errutinak jarraitzen oso onak direla. Zailtasun gehienak harremanetan dituzte, eta baita ere inguruneko gauzak ulertzeko, orokorrean, mundua ulertzeko.”

- Zer nolako sentimenduak izan dituzu ume hauekin lan egin duzunean? Zergatik?
“Denetarik... Maitasuna askotan sentitu dut, ume hauei maitasun handia hartzen zaie. Hala ere autismoa duten ikasleekin lan egitea zaila da, eta askotan ere frustrazioa sentitu dut, batzuetan ez nintzelako gai haiekin komunikatzeko eta adierazi nahi zutena ulertzeko, eta hori oso frustragarria da.”
- Zure esperientzian oinarrituz, zein/zeintzuk izan daitezke irakasle batentzat aspektu klabeak ume autista batekin modu egokian harremantzeko orduan?
“Ume hauei begietara begiratzea, haiei emandako aginduak motzak eta zehatzak izatea, eta batez ere pazientzia.”

5. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN ERABILITAKO ESKU-HARTZEAK ETA PRAKTIKAK:

- Autismoaren esku-hartzeari dagokionez, esku-hartze eredu desberdinak existitzen direla esan daiteke. Zer teknika edo baliabide erabiltzen dituzu ikasle hauen hezkuntza aurrera eramateko?
“Piktogramak eta haiekin gertua izatea, haiengana hurbiltzen saiatzea eta haien mundua ulertzen saiatzea.”
- Ordenatu garrantzirik handienetik gutxienera zure ustetan autistekin irakaskuntza-ikaskuntza egoerak aurrera eramateko aipatzen diren honako hauek:
 - Umearekiko distantzia errespetatu jazarpen eta mehatxu sentsazioak ekiditeko.
 - Aspektu motore eta posturalak lantzea fenomeno emozionalak eta ingurunea ulertzeko helburuarekin.
 - Antolakuntza materialak erabiltzea ordena eta antolamendua mantentzeko: piktogramak, taulak, ordutegiak....
 - Haien interes estereotipatuak eta obsesioak oinarritzat hartzea eta horietatik abiatzea beste gaien inguruko ikasketa sustatzeko .
 - Errefortzuak erabiltzea portaeran eragiteko: sariak eta zigorrak.
 - Musikaren elementuak erabiltzea efektu lasaigarriak lortzeko eta portaera sozio-emozionala hobetzeko.
 - Teknologia berriak erabiltzea (ZAC Browser nabigatzailea, Pecs sistema interaktiboa...).
 - Aspektu logopedikoak lantzea.

- Azken hamarkadetan, autismoa duten umeekin lantzeko beste esku-hartze, aukera eta baliabide batzuk sortu dira, ezagutzen duzu baten bat? Noizbait erabili dituzu?

“Ez, ez ditut ezagutzen egia esanda.”

- Teknologia berriak autismoa duten umeen hezkuntza aurrera eramateko baliagarriak direla uste duzu? Erabili ohi dituzu?

“Kasuaren arabera, baina bai, batez ere irakurtzeko eta idazteko baliagarriak izan daitezke. Hala ere nik ez ditut askotan erabiltzen.”

- Zein esango zenuke dela irakasleek duten oztopo edo traba nagusia metodologia edo esku-hartze eredu berritzaileak erabiltzeko?

“Ez ezagutzea eta hauen inguruko formakuntzarik ez izatea eta baita ere denbora falta. Geletan ikasle asko ditugu eta horrekin batera kasu desberdin asko ere.”

Zazpigarren elkarrizketa

1. DATU OROKORRAK:

- Eskola mota: Publikoa Itunpekoa
- Irakaslearen adina: 29
- Generoa: Emakumezkoa Gizonezkoa
- Egindako ikasketak: Magisteritzako Diplomaturia (Atzerriko Hizkuntza)
- Eskola honetan zein beste eskola batzuetan Lehen Hezkuntzako irakasle bezala izandako esperientzia/ urte kopurua: 10
- Autismoa duten ikasleekin izandako esperientzia/ urte kopurua: 8

2. IRAKASLEEN FORMAKUNTZA ETA AUTISMOAREN INGURUKO EZAGUTZAK:

- Autismoaren inguruko formakuntzarik jaso duzu? Non edo noren partez jaso zenuen formakuntza hori? Nolakoa izan zen? Baliogarria izan zen?
“Egia esan ez dut jaso, dena izan da ahoz PTarekin hitz egiten edo nire kabuz bilatu dudana”.
- Autismoa duten ikasleekin lan egiteko prestakuntza edo formakuntza nahikoa duzula uste duzu? Zergatik?
“Ez, gehiago beharko nuke. Nahiz eta denborarekin ikasi, uste dut gehiago behar dudala.”
- Zure kabuz autismoaren inguruko informazioa bilatu duzu noizbait? Non?
“Bai, googlen eta hezkuntzarekin loturiko liburuetan zein artikuluetan.”
- Orokorrean, uste duzu zentro honetako irakasleen formakuntza maila egokia dela autismoa duten umeen beharrei erantzuteko?
“Egokia bai, baina ez eskolaren alde jaso dugulako, baizik eta bakoitzak bere bidea bilatu duelako.”
- Zer nolako informazio gehigarria jasotzea gustatuko litzaizuke?
“Batez ere ume hauen zailtasunak eta haiei nola egin aurre ezagutzea. Klasean nola komunikatu, nola ez, zer nolako tresnak dauden...”

3. IRAKASLEEN PERTZEPZIOA AUTISMOAREN AURREAN

- Uste duzu hezkuntzaren bitartez autismoa duten ikasleen gaitasunak (akademikoak, sozialak, komunikazio gaitasunak) hobetu daitezkeela?
“Bai, guztiz.”
- Uste duzu hezkuntzaren bidez autismoa duten ikasleen portaera hobetu daitekeela? Erantzuna baiezkoa bada, nola?
“Ez dakit, baina baietz izatekotan oso zaila izango litzateke eta profesional bat denbora orotan bere gainean egotea beharrezkoa izango zen.”
- Zailagoa egiten zaizu autismoa duten umeekin lan egitea beste nahaste batzuk dituzten umeekin lan egitea baino? Zergatik?
“Bai, behar desberdinak dituztelako eta normalean, haien beharrak adieraztea, zurekin komunikatzea, etab. zailagoa da.”
- Uste duzu zailagoa dela autismoa duten umeetan hobekuntzak lortzea beste nahaste batzuk dituzten umeekin alderatuz? Arrazoitu erantzuna.

“Bai, haiekin harremantzeko prozesua zailagoa da eta.”

- Uste duzu formakuntza berezi bat izatea beharrezkoa dela ume hauekin lan egiteko? Zergatik?

“Bai, goian aipatutakoagatik.”

4. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN IZANDAKO ESPERIENTZIA:

- Orokorrean, nolakoa izan da ikasle hauekin izandako esperientzia eta harremana?

“Hasieran zaila baina gero oso ona eta azkenean enpatia asko izanda ume hauekin erlazio berezi bat garatzea lortzen duzu.”

- Zeintzuk esango zenuke direla autismoa duten ikasleen indarguneak? Eta zeintzuk uste duzu direla ikasle hauen puntu ahulenak edo zailtasunik handienak?

“Indarguneak aurkitzea zaila egiten zait. Zailtasunak: harremantzeko prozesua, komunikazioa...”

- Zer nolako sentimenduak izan dituzu ume hauekin lan egin duzunean? Zergatik?

“Askotan amorrua haiekin lan egitea zaila delako, baina azkenean sentimendu onak beti; poztasuna, maitasuna...”

- Zure esperientzian oinarrituz, zein/zeintzuk izan daitezke irakasle batentzat aspektu klabeak ume autista batekin modu egokian harremantzeko orduan?

“Egia esan ez nuke esango modu bakarra eta egokirik dagoenik. Nik uste dut haietara hurbiltzen saiatu behar zarela, eta haien portaera nolakoa den pixkanaka ezagutu, gero horri hurbildu behar zara eta ikusten joan zer nolako portaerak dituen eta saiatu...”

5. AUTISMOA DUTEN IKASLEEKIN ERABILITAKO ESKU-HARTZEAK ETA PRAKTIKAK:

- Autismoaren esku-hartzeari dagokionez, esku-hartze-eredu desberdinak existitzen direla esan daiteke. Zer teknika edo baliabide erabiltzen dituzu ikasle hauen hezkuntza aurrera eramateko?

“Pikotgramak, fitxa errazagoak, koloreztatze materialak eta bideo/ argazkiak....”

- Ordenatu garrantzirik handienetik gutxienera zure ustetan autistekin irakaskuntza-ikaskuntza egoerak aurrera eramateko aipatzen diren honako hauek:
 - Umearekiko distantzia errespetatu jazarpen eta mehatxu sentazioak ekiditeko
 - Teknologia berriak erabiltzea (ZAC Browser nabigatzailea, Pecs sistema interaktiboa...)
 - Errefortzuak erabiltzea portaeran eragiteko: sariak eta zigorrak.
 - Musikaren elementuak erabiltzea efektu lasaigarriak lortzeko eta portaera sozio-emozionala hobetzeko
 - Haien interes estereotipatuak eta obsesioak oinarritzat hartzea eta horietatik abiatzea beste gaien inguruko ikasketa sustatzeko .
 - Aspektu motore eta posturalak lantzea fenomeno emozionalak eta ingurunea ulertzeko helburuarekin
 - Aspektu logopedikoak lantzea
 - Antolakuntza materialak erabiltzea ordena eta antolamendua mantentzeko: piktogramak, taulak, ordutegiak....

- Azken hamarkadetan, autismoa duten umeekin lantzeko beste esku-hartze, aukera eta baliabide batzuk sortu dira, ezagutzen duzu baten bat? Noizbait erabili dituzu?

“Ez.”
- Teknologia berriak autismoa duten umeen hezkuntza aurrera eramateko baliagarriak direla uste duzu? Erabili ohi dituzu?

“Ez ditut erabili eta ez ditut ezagutzen.”
- Zein esango zenuke dela irakasleek duten oztopo edo traba nagusia metodologia edo esku-hartze eredu berritzaileak erabiltzeko?

“Hori egiteko eta aplikatzeko denbora.”

5. Eranskina: Baimen informatua

AUTISMOA DUTEN IKASLEEN IRAKASLEENTZAKO GALDETEGIA

Hurrengo galdetegiaren helburua edo xedea Lehen Hezkuntzako irakasleek autismoaren nahastearen inguruan duten formakuntza eta pertzepzioa aztertzea da. Hori dela eta, zure parte-hartzea berebizikoa da, eta galdetegia betetzeko hartutako denbora eskertzen dizut. Galdetegi honetako erantzun guztiak anonimoak dira, eta hauen konfidentzialtasuna bermatzen da, jasotako datuak gradu amaierako lana garatzeko soilik erabiliko direlarik.

Beraz, dokumentu hau sinatzerakoan, galdetegi honen bitartez eskainitako datuak aurretik aipatutako lana garatzeko erabiltzea baimentzen duzu.

Data:

Elkarrizketatuaren sinadura:
